

UNIBERTSITATE PUBLIKO ETA KRITIKO BATEN ALDEKO MANIFESTUA

Behin Analisi Politiko Kritikoaren lehenengo jardunaldiak iraganda, irakasle zein ikasleak eremu akademiakoaren atal izaiki, ezinbestekotzat jotzen dugu, egun unibertsitatea jasaten ari den eraldaketaren inguruko erreflexio zein eztabaiderako eremu baten sorrera.

Honenbestez, unibertsitateko langileak garen heinean, gure ezinegona adierazi nahi dugu EEES-arekin batera bideraturiko “konbergentzia prozesu” honen aurrean. Izan ere, bolognako planak, ikaskuntza publikorako eskubidea urratzen duela uste dugu, beronen funtzio soziala oztopatzen baitu ikasleriaren egoera prekarizatuz unibertsitateko gainerako langileenaz gain. Gainera ikerkuntza zein ikaskuntza, interes pribatuen mesedetara bideratzen dituelarik.

Bestalde, erreforma hau, eztabaida publikotik at ematen ari dela salatu nahi dugu, modu ezkutu batean ematen ari delarik, eta sarritan improbisatuz.

EEESaren eraikuntza, zerbitzu publikoaren pribatizazio eta merkantilizazio politika baten barnean kokatzen dugu. Are gehiago, turbulentzia ekonomikoen garaiotan, erabat gaitzesten dugu Unibertsitate publikoak alor honetan krisiak eragindako galerak ordaintzea.

Era honetara, kritika eta manifestu honen bitartez, Analisi Politiko Kritikoaren I Jardunaldiak bere honespena ematen die gizartetik, prozesu honen aurka ematen ari diren eta emango diren borrokei, prozesu hau gelditzeko helburuaz. Unibertsitatearen bestelako erreforma bat bultzatu nahi dugularik; Demokratikoa eta ikerkuntza zein ezagutzaren transmisio, kritiko eta publikoa alegia. Aldaketa honek ikasle zein irakasleei eragiten dien heinean, borrokarako elkartasunerako dei bat egiten dugu.

Eta azkenik, ikertzaile sozialak izaiki, unibertsitatearen egoeraren inguruko analisi jarrai baten beharra defendatzen dugu, alternatiba berrien agerpena bultzatzeko bidean. Izan ere, aipetzekoa dela uste dugu Jardunaldi hauetan gai honi bideraturiko garrantzia eskasia, eta honenbestez, Jardunaldi hauen bigarren edizio posible bati begira, gai hau landuko lukeen lan-talde baten beharra aldarrikatzen dugu.